



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

	EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO SARRERA - ENTRADA
2014 MAR. 06 MAR. 06	
Nº 16289 ZK.	
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL	

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIRI

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Behean sinatzen duten legebiltzar-taldeek honako ERDIBIDEKO ZUZENKETA hau aurkezten diete legez besteko proposamenei: Atzerrian aldi baterako bizi diren herritarrak osasun-sistematik kanpo uzten dituen lege-proiektuari buruz [10/11/02/01/0390], eta Alderdi Popularrak Barakaldoko egoitzan jasandako erasoak kondenatzeari buruz [10/11/02/01/0364].

Los grupos parlamentarios abajo firmantes tienen el honor de presentar la siguiente ENMIENDA DE TRANSACCIÓN a las proposiciones no de ley: en relación con el proyecto de ley que excluye del sistema sanitario a los ciudadanos y ciudadanas que residen temporalmente en el exterior [10/11/02/01/0390], y relativa a la disposición adicional publicada en el Boletín Oficial del Estado de 26 de diciembre de 2013 sobre atención sanitaria a ciudadanos residentes en el extranjero [10/11/02/01/0364].

ERDIBIDEKO ZUZENKETA

ENMIENDA TRANSACCIONAL

Legebiltzarrak arbuiatzen du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko Testu Bateratuko xedapen gehigarria, Estatuko Aldizkari Ofizialean 2013ko abenduaren 26an argitaratutakoa. Halaber, Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz ditzala osasun-eskubideak mugatzen dituzten politikak. Zentzu horretan, indargabetu ditzala xedapenak, aldi baterako atzerrian dauden pertsonen osasun-arretarako sarbidea murrizten dutenak. Pertsona horiei bermatu diezaiela berdintasuna, Espainiako Osasun Sistemako osasun-arretarako sarbidean.

El Parlamento Vasco rechaza la disposición adicional del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, publicada en el BOE el 26 de diciembre de 2013, y solicita al Gobierno de España que abandone las políticas restrictivas de derechos en materia sanitaria y, en ese sentido, derogue aquellas disposiciones legales que restringen el acceso a la asistencia sanitaria a las personas que se encuentran en el extranjero temporalmente y se les garantice la igualdad en el acceso a la asistencia sanitaria del Sistema Nacional de Salud.

Legebiltzarrak salatu egiten du Espainiako Gobernuak neurri horiek inposatu izana. Izan ere, ez dituzte errespetatzen Autonomia Estatutuan jasotako eskumenak, osasunari buruzkoak; eta gainera, kalte larria eragiten diote Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi garenon osasun-babeserako eskubideari.


El Parlamento Vasco denuncia la imposición de estas medidas por parte del Gobierno de España, en cuanto que no respetan las competencias en materia sanitaria recogidas en el Estatuto de Autonomía y perjudican gravemente el derecho a la protección de la salud de las personas que vivimos en la Comunidad Autónoma de Euskadi.





Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio bere eskumenak erabil ditzala ahal beste neurri politiko eta juridiko hartzeko. Helburua izango da aurre egitea Espainiako Gobernuak inposatu nahi dituen neurri horiei, eta ondorioz, osasun txartela indarrean mantendu ahal izatea atzerrian hiru hilabete baino gehiago daramatzaten eta langabezi-saria ez duten euskal herritarrentzat. Horrekin guztiarekin, bermatu egiten da Euskadin osasun-arreta publiko eta unibertsalerako eskubidea, kontuan izan gabe zein den denboraldi baterako bizilekua eta lan-egoera.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en el uso de sus competencias, adopte todas las medidas políticas y jurídicas a su alcance para hacer frente a estas medidas que el Gobierno de España pretende imponer de tal forma que mantenga activa la tarjeta sanitaria a los ciudadanos y ciudadanas vascas que permanezcan en el extranjero más de tres meses y no reciban prestación por desempleo, garantizando el derecho a la asistencia sanitaria pública y universal en Euskadi con independencia del lugar de residencia temporal y de su situación laboral.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko martxoaren 6an.

EU Bara



GPSU-ES


EA-NU